



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Erreteren txurro-denda bat jarriz jabari publikoaren aprobetxamendu pribatiborako administrazio emakidaren lizitazioa arautuko duten oinarrien aldaketa puntualari buruzko iragarkia.

2021eko urtarrilaren 29ko 227. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, deialdia arautzen duten oinarrien aldaketa puntuala egin da. Lizitazioaren iragarkia honela gelditu da:

1. *Erakunde esleitzaila*
 - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
 - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - c) Espediente-zenbakia: 2021/IDA_ERA_0005.
2. *Dokumentazioa eta informazioa lortzea*
 - a) Bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - b) Helbidea: Irakaskintza, 14-16.
 - c) Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
 - d) Telefonoa: 946 179 105.
 - e) Webgunea: www.bermeo.eus.
3. *Lizitazioaren xedea*
 - a) Mota: jabari publikoa ematea.
 - b) Deskribapena: jabari publikoa ematea, Bermeoko Erreteren herrian txurro-denda bat instalatuz jabari publikoaren aprobetxamendu pribatiborako.
 - c) Iraupena: Herri-erabilerarako emakidaren iraupena 15 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.
4. *Izapideak eta prozedura*
 - a) Tramitazioa: arrunta.
 - b) Prozedura: irekia.
 - c) Modua: enkantea.
 - d) Lizitaziorako gutxieneko tasa: 2.300,00 euro/urteko.
5. *Bermeak*
 - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
 - b) Behin betiko bermea: esleipen-prezioaren %5.
6. *Eskaintzak aurkeztea*
 - a) Aurkezteko azken eguna: hilabete, dagokion iragarkia Bizkiako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe hau 5 egun naturaletan luzatzen da.
 - b) Aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek bi gutunazal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiri-ko 11. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.
 - c) Aurkezteko modua:
 - Berhaz (Ertzilla kalea, 6-8, 48370, Bermeo).
 - Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>.
 - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.



7. *Eskaintzak irekitzea*

- a) Erakundea: mahaia.
- b) Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2021eko otsailaren 1ean.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense